ttipi-ttapa fundazioa | **860. zk.** | 2024ko abuztuaren 8a | **XLIV. urtea** | **erran.eus** | TOKIKOM

# ttipi-ttapa




**HERRIETAKO BESTAK** / 7



## ABUZTUAN BESTAZ ETA UREZ BLAI!

Herriz herriko bestetako egitarauak aurkituko dituzue aldizkari honetan.
Honekin batera, irailera bitarte agurtzeko tenorea ailegatu zaigu.
Irailaren 5ean hartuko duzue hurrengo Ttipi-Ttapa. Uda ona izan!

FREEPIK




**TELEFONO GIDA**

**Eskualdeko hiru familia musikaririkin kontu kontari** / 7

**Bildots ile-mozte txapelketa Zugarramurdiko bestetan** / 18




**ZOZKETA** / 36

# Nire posturarik gustokoena?

# *Presiorik ez.*



**Nafarroan…**
**Gozatu, partekatu eta errespetatu**

#PrebentzioNeurriakErabili
#PresiorikEtaGezurrikEz
#EtiketarikGabekoMaitasuna

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

AGENDA 2030



Ezkerrean Gurrutxaga-Olazabal familia, erdian Mitxelena aita-semeak eta eskuinean Petti eta Pinatxo anai-arrebak.

# Belaunaldiz belaunaldi musikaren bueltan

Aresoko, Arantzako eta Berako hiru familia musikariren testigantzak bildu ditu Ttipi-Ttapak. Belaunaldi batetik bertzera instrumentu berdinak aukeratu dituztenak edo ez, taldean edo bakarka ari direnak. Orain arte egin duten ibilbideaz eta gaur egun duten martxaz aritu dira

**G. PIKABEA**

Musika maite dute, eta ttikitatik ibili dira musikaren bueltan, instrumenturen bat jotzen ez bada, kantari, edo bietan. Erreportajeko protagonistek, hala ere, badute bertze ezaugarri bat: familia musikariak direla. Neurri ttikiagoan edo handiagoan, elkarrekin edo bakoitza bere aldetik, baina denak euren bidea egiten ari dira. Eskualdeko hiru familia musikarirekin bildu da Ttipi-Ttapa: Berako Juan Luis Perez Mitxelena *Petti*rekin eta Estitxu eta Jokin Pinatxorekin, Arantzako Gregorio, Beñat eta Andoni Mitxelena aita-semeekin eta Aresoko Gurrutxaga-Olazabal familiarekin.

## GURRUTXAGA-OLAZABAL

«Modu naturalean eta gehiegi pentsatu gabe» bildu dira musikaren inguruan Aresoko Gurrutxaga-Olazabal familian, etxean «betidanik» edan duten zaletasunari tiraka. Jaione Olazabalen kasuan, «gurasoak eta aitona-amonak, batez ere aitona, oso zaleak izan dira eta laguntza handia eman izan didate. Jonek [Gurrutxaga] ere txikitatik zaletasun handia izan du. Musika gure bizitzako une garrantzitsu guztietako parte izan da eta egunerokoan ere oso presente egon da beti».

Gaur egun, sei dira etxean, Jaione, Jon, eta haien lau seme-alabak, eta agerikoa da zaletasunak belaunaldi batetik bestera izan duen segida. Jaionek eskusoinua jotzen du. Haurra zela hasi zen ikasten, eta «batean eta bestean jotzen» aritu da geroztik. Bai akordeoiarekin, baita gabe ere, kantari, eta taldeetan eta bakarka, askotan erakutsi du horretarako dohain berezia duela. Jon bikotekideak ere egina du bere bidea musikaren munduan, zehazki trikitixa eta gitarra eskuetan: lehenbizi Iñaki Garmendia *Laja* trikitilari ezagunarekin hasi zen trikitixa ikasten, eta «urte batzuez» utzita eduki ondotik, Juan Ramon Azpitarte *Imuntzo* trikitilariaren arrimuan berrartu zuen. Gitarra musika eskolan ikasi zuen.

Aratz (14 urte), Intzara (12 urte), Arhane (9 urte) eta Nahikari (7 urte) Jaioneren eta Jonen seme-alabak dira. «Instrumentuaren aukeraketa haurren esku utzi» izan dute, eta diotenez, «oso argi izan du bakoitzak». Hala, Aratzek bateria, Intzarak trikitixa eta panderoa eta Arhanek gitarra eta panderoa aukeratu dituzte. Etxeko ttikiena da momentuz musika ikasketekin hasi ez dena, baina ez da urruti izaten emanaldietan.

### Haurrekin batera

Jon eta biak «elkarrekin hasi zirenetik» dabiltza «batean eta bestean jotzen eta kantari», zehaztu dutenez, «batez ere formatu txikian, herri txikietan, ezkontzetan eta bestelako ospakizunetan». Bidean haurrak bildu dira taldera: «Gurekin batera eraman eta emanaldien parte izan dira, batzuetan aurretik entseatuta eta besteetan beraien gisa, etxean bezala, boteprontoan parte hartuz».

Oholtzaz oholtza dabiltza azken aldian, euren doinu ederrekin hango eta hemengo belarriak goxatuz. Joan den urte bukaeran, seiak elkarrekin argitaratu zuten *Zuri kantari* diskoak eman die horretarako bidea eta «pozik» daude: «Hamaika kantuz osatutako CDa grabatu genuen guretzako gordetzeko eta ingurukoei banatzeko asmoz, baina pixkanaka zabalduz joan zen eta inguruko herri batzuetatik emanaldiak egiteko eskatuz deitzen hasi ziren». Ustekabean harrapatu ditu erantzunak: «Diskoa xumea da eta espero genuena baino harrera hobea izan du. Egia esan, esperientzia oso polita izaten ari da, oso gustura gaude». Diskoa kaleratuz, ametsa egia bihurtu ote zaien galdetuta, berriz, «galdera potoloa» dela diote; «ez dakigu zer esan». Hortik haratago joan dira: «Familia osatu eta gu eta ingurukoak egunerokoan ongi egotea da batez ere gure ametsa eta momentuz ezin kexatu».

### «Ez dago sekreturik»

«Batzuetan gehiago eta besteetan gutxiago». Halaxe aritzen omen dira egunerokoan musikarekin: «Askotan aritzen gara soinua jotzen, dantzan edo kantari. Bat hastea nahikoa izaten da gainerakoak hurbiltzeko eta batzuetan erotzeko moduko zarata izaten dugu... Eskerrak ez dugun goian edo behean auzokiderik!». Etxeko entseguez aparte, kotxea ⟶



Zutik, Jon gitarrarekin eta Jaione akordeoiarekin; behean ezkerretik hasita, Arhane, Intzara, Nahikari eta Aratz. AMAIA IPARRAGIRRE

⟶ dute kanturako txokoa: «Kotxean musika jarrita joaten gara toki guztietara eta kantari joateko ohitura handia izan dugu. Hor sortu ohi dira ideia berriak eta hor aritzen dira haurrak abestiei ahotsak ateratzen».

Beraienean musikak duen segidaren harira, berriz, «ez dagoela sekreturik», aipatu dute: «Jendeak uste izaten du buru-belarri entseatzen aritzen garela etxean, baina hori baino gehiago, modu naturalean sortzen denarekin aritzen gara. Besterik gabe, musika martxan izaten da askotan gure inguruan eta haurrek nahi gabe hartu dute zaletasuna». Horrekin batera, «kantu zaharren otordu eta emanaldi askotan izan gara eta haurrak beti eraman izan ditugu, saltsa horretan hazi dira eta horrek asko lagundu du».

Elkarrekin ari direnean, «une askotan hunkitzen» direla ere onartu dute gurasoek: «Batez ere haurren ahotsak beti izan du hunkiarazten duen zerbait eta guretzat, batera kantatzea gauza ederra da».

Badituzte bihotzean iltzatutako momentuak ere: «Aitona-amonak hor izaten dira kontzertu guztietan, ez dute bat ere galtzen. Haiek pozik eta gustura begira ikusteak ez du preziorik, hori da poz handiena ematen diguna!». Eta gehiago ere bai. Haurrek «momentu berezi bat baino gehiago» izan omen dituzte emanaldietan: «Jendeak 'beste bat' oihukatzean, autografoak eskatzean...».

Dena den, «oreka bilatu nahian» ari direla aitortu dute: «haurrek bestelako afizioak ere badituztelako eta musikarekin guztiz nazkatzerik ez dugulako nahi». Eta etorkizunera begira, «modu batera edo bestera musikak gurean lekua» izango duelakoan daude, baina emanaldien kontua «bolada baterako» izango dela iruditzen zaie: «Haurrak hazten ari dira, badituzte beste afizioak ere, bakoitzak bere bidea hartuko du eta ez da erraza izango talde moduan luzaroan jarraitzea. Baina bizitakoa hor geldituko zaie».

Bidean lagundu dietenei eskertzeko ere probestu dute eta halaxe bidali diete eskertza «Anjel Mariezkurrena lagunari hainbeste laguntzeagatik, Amaia Iparragirre gure argazkilari lagunari, David Garcia Puro Relajo taldeko lagunari diskoarekin hainbeste laguntzeagatik, eta etxekoei eta ingurukoei».

## MITXELENATARRAK

Eskualdean gutti izanen dira Arantzako Gregorio Mitxelenaren eta Beñat eta Andoni Mitxelena semeen musika doinuak aditu ez dituzten herriak. Aitzinekoengandik hartu dute musikarako zaletasuna. Gregoriok «*atta*, osabak eta lehengusuak akordeoilariak» zituen, eta berak ere bide hori hartu zuen. Etxean hasi zen, eta «11 urterekin Iruñera estudiatzera» joan zenean eman zion segida: «Han solfeo ikasi nuen, baita piano pixka bat eta txistua ere». 15-16 urterekin herrian bertan eman zuen akordeoiarekin jende aitzinean jotzeko saltoa; batetik, «inauterietan» eta bertzetik, «igandeetan plazan. Lehen igandeetan Arantzan musika izaten zen eta Miguel Mari Iparragirrek utzi behar zuela erran zuela eta hasteko erran zidaten. 17 urterekin, Bordatxo ireki zuten, eta akabo gure musika».

Herritik kanpo, Evaristo aitaren arrimuan eman zituen plazaz plazako lehenbiziko pausoak, eta «batzuetan, *atta*k lana baldin bazuen, bere partez joaten nintzen». Akordeoiarekin egiten zituen harat-honatei, Ekaitz musika taldearenak gehitu zizkion agudo: «Ekaitz taldea sortu eta 1974ko urteko urtezahar egunean aurkeztu genuen Arantzan». 1983ra ibili zen eta urte biziak izan zirela gogoan du: «Bestaz besta jo eta ke ibiltzen ginen. Oroitzen naiz, abuztu batean, 31 egunetik 28tan musika jo genuela».

Baina ez da hori bakarrik. Musikaren bueltan herrian auzolanean azkarki egindakoa da Gregorio. Bertzeak bertze, herriko gaztetxoei txistua erakusten ibili zen, eta kalejiratan, bestetan edo Eguberrietan akordeoia joz, elizan organoa joz... Herriko ekitaldi eta bazter aunitz bere musika doinuekin alaitu izan ditu, berezkoa duen abileziarekin. Eta berak bezala, Beñat eta Andoni semeek.

### Nolako zura, halako ezpala

Beñat eta Andoni anaiak zortzi bat urterekin hasi ziren musika ikasketekin, zer instrumentu aukeratu «hasieratik garbi» zutela. Gainera, klaseak hartzen hasi aitzinetik, etxean hasiak ziren botoiak astintzen: «Oroitzen naiz lehenbiziko klaserako banekiela eskuineko eskuarekin Andre Madalen jotzen», dio Beñatek. 18 urtera arte hartu zituzten akordeoi klaseak.

Herriko inauterietan mozorro ttikiekin batera akordeoia joz hasi ziren lehenbizikoz etxetik kanpo. Eta Beñaten kasuan, hurrengo pausoa «15 urterekin San Isidro Egunez Zahar Txoko elkartean izaten zen bazkarian izan zen. Han urte batzuez jo nuen. Hortik aparte, gutti». Istantean hasi zen gehiago: «20 urterekin, inauterietan ateratzen hasi nintzen». Eta geroztik batetik bertzera dabil, deskantsurako tarte handirik gabe: «26 urtera arte akordeoiarekin bakarrik ibili nintzen, eta 26 urterekin teklatua eta altabozak erosita, arratsetan plazetan hasi nintzen». Gehiago ere bai: «2015etik 2022ra Txamukos mariatxi taldean ibili nintzen». Gaur egun, bere aldetik eta Fernando Otanorekin ibiltzen da.

Andoni ere plazaz plaza dabil. «Unibertsitatera joan nintzenean, akordeoia alde batera» utzi zuela jakinarazi du, baina agudo piztu zitzaion berriz harra: «22-23 urterekin *atta* akordeoien kanten audioak bidaltzen

hasi zitzaidan eta berriz hartu nuen akordeoia». Jende aitzinean «Arantzako inauterietan» hasi zen, «2012an edo 2013an, eta geroztik urtero ateratzen naiz». Herritik kanpo ere urte mordoxka daramatza batean eta bertzean: «Ez dakit noiz izan zen lehenbizikoa, baina uste dut Berroetan edo Anizen izan zela». Eta teklatuarekin ere hasi zen: «Beñatek teklatu berria erosi zuenean, berea heredatu nuen eta horrekin segitzen dut».

Gaur egun, «bakoitzak bere herriak ditu eta horietan ez dugu hutsik egiten», esplikatu du Beñatek. «Aunitzetan bertze herri batzuetatik ere deitzen digute, baina ezin ailegatuz ibiltzen gara. Nik, urtean, 50 bat saio izaten ditut, eta hortik pasatzea zaila izaten da. Aurten, Puro Relajo taldearekin ordezkapena egitea tokatu zait eta igual 80 bat egin izanen ditut, eta Txamukosen garaian ere bertze horrenbertze eginen nituen, taldearekin eta bakarrik. Baina lanean ari baldin bazara, erokeria da».



Ezkerretik hasita, Andoni, Gregorio eta Beñat Mitxelena, Gregorioren sortetxea den Urdingoibaitako atean.

### Musikarako afizioa

Arantzan instrumenturik zabaldu baldin bada, horiek akordeoia eta txistua izan direla diote. Baina hortik aparte, herriak «musikarekin lotura berezia» duela aipatu dute aita-semeek: «Ikusi bertzerik ez da egin behar herriko bestetan zenbat jende izaten den plazan dantzan. Plaza gutti dira dantzan hola betetzen direnak», dio Andonik. Eta honela gehitu du anaia zaharrenak: «Arantzan bada solfeoa ikasi gabe, ongi kantatzen eta erritmoa ongi eramaten duen jende aunitz».

Afizio horri kontu nahi diote eurek, bakoitza bere aldetik, edo aukera dutenean elkarrekin. Afizioa ez ezik, «pasioa» ere badelako eurentzat musika. Beñatek kontatu du «aunitzetan» erran izan diotela «'Bo, arratsean jotzera joan beharra'. Baina inork ez nau behartzen. Nik nahi dudalako joaten naiz, ongi pasatzen dudalako. Igual biharamunean, bi ordu lo eginda joan beharko dut lanera, baina konpentsatzen du». Andoni ere iritzi berekoa da: «Musika jo eta jendea dantzan edo kantari ikustea gauza ederra da, gustura aritzen gara eta denbora segidan pasatzen da». Eta semeak hala ikusita, aita kontent: «Niretzat gauzarik ederrenetariko bat da musika, eta semeak hola ibiltzea hagitz ongi iruditzen zait». Jakitun da «ez dela erraza, sakrifizioa eta konpromisoa dela», baina semeak prest dira segitzeko: «Momentuz, segitzeko ideiarekin gara», adierazi du Andonik.

### «Gero eta guttiago»

Beñaten hitzetan, «horrela ibiltzen garenak gero eta guttiago gara. Jendeak 'faborez, zatozte' erraten dizu eta pena ematen dizu ezetz errateak. Gainera, uzten badugu zuzeneko musika desagertuz joanen da». Eta Gregorioren ustez, «ez du deus ikustekorik musika zuzenean baldin bada». Andonik badu anekdota bat: «Iruñeko peña batean musika jotzen ari nintzen. Gorputza erdi tapatua nuen, burua bakarrik bistan. Bi gazte kanta bat eskatzera hurbildu ziren eta teklatua jotzen ikusi nindutenean, 'hara, jotzen ari da eta!' erran zuten harrituak. Holakoetan ohartzen zara DJak zer sartuak dauden. Jendeak 'Baduzu kanta hau?' edo 'Kanta hau paratuko duzu?' erraten dizu, ez kanta bat jotzeko».

Gero eta guttiago direla ikusita, musikariei «animatzeko» deia egin die Beñatek: «Jende gaztea behar da. Inguruan badira hagitz ongi jotzen dutenak. Beldurra kendu eta has daitezela, ongi pasatuko dute!».

### PETTI ETA PINATXOTARRAK

Beran, inguruan eta Euskal Herrian ez dute aurkezpen handirik behar Berako Juan Luis Perez *Petti* eta Estitxu eta Jokin Pinatxok. Euskal Herriko musikaren eszenan, ezagunak dira, eta familia berekoak. Pinatxotarren amaren lehengusua da Petti, eta «betitik hagitz hurbileko harremana» izan dutela aitortu dute.

Ibilbide luzea egiten ari da Petti musikagintzan. «Familian beti kantari eta musikazale finak» izan dituela kontatu du, eta «handik sartu zitzaidan kantatzeko grina». Aunitzerako eman dio grina horrek «musika bizimodu, behar, terapia eta plazera» bihurtzeraino. Urteotan «hamahiru disko eta hainbat hibridazio» argitaratu ditu eta lanean segitzen du, «hainbat proiektutan murgilduta»: «Balerdi Balerdi taldeko gitarrista naiz, Bider 5 kolektiboko kantaria, *Frankestein agurgarria* disko liburua bukatzen ari gara eta urriaren 31n aurkeztuko dugu Hondarribian; zuzeneko diskoa grabatuko dut taldearekin urte bukaeran 2025ean argitaratzeko eta kanta berriekin egindako bertze disko bat eginen dut hurrengo urtean argitaratzeko». Kontzertuen aldetik, urtea «nahiko ongi» doala adierazi du: «Dozena bat egin ditut, bai taldearekin, bai bakarka, eta uztailean Galiziako biratxoa egin dugu. Udazkenean ere badira datak lotuak, eta ezin kexatu».

Estitxu eta Jokin «ttikitan» hasi ziren musika eskolan. Arreba zaharrena akordeoiarekin hasi zen, eta «geroztik hainbat instrumenturekin saltsan ibili naiz: pianoarekin, gitarrarekin... Duela hamar urte tronboia ikasten hasi nintzen eta berriki, atabala». Hala ere, horien gainetik «nire instrumentua boza» dela sentitzen du. Gazterik hasi zen «profesionalki» kantari: «15 urterekin Egan taldean hasi nintzen erromerietan, eta ondotik, bertze erromeria taldeetan eta bertzelako proiektuetan ibili naiz». Bi disko ere baditu esku artean: *Haize gorri batek* (2019) eta *Isilik daude harriak* (2021). «Hagitz gazterik hasi ⟶



Ezkerretik hasita, Petti, Estitxu Pinatxo eta Jokin Pinatxo.

garai bateko aduanak ematen duen bulkada goraipatu du Estitxuk: «Udalak herriko musikarioi uzten digu entseatzeko eta laguntza handia da. Mugimendu handiko lokala da».

### Elkarrekin noiz?

Bakoitza bere bidea egiten ari da. Baina oraindik ez dira sekula igo oholtza gainera denak elkarrekin. Estitxuk eta Pettik «aunitzetan» kantatu dute batera eta Estitxuk dio «erromeria taldeak utzi eta bertzelako proiektuetarako saltoa Pettiri esker» egin zuela. Gehiago ere bai: «Pettirekin kantatzea beti ederra da, hagitz sentsazio betea sentitu izan dut». Bide beretik jo du Pettik: «Estitxurekin kantatzea plazera eta harro egoteko modukoa da».

⟶ nintzen, baina nire kantak konposatzen nahiko berandu». Horren harira, bere diskoetan bidelagun izan duen Mikel Santxezen laguntza nabarmendu du: «Nik kanten hezurdura osatu eta berak jantzi izan ditu, izugarri lagundu dit. Eta testuak idazterakoan, lehenbiziko diskoan bada bakarren bat nirea, baina urteotan hainbat proiektutan parte hartuta ezagutu dudan jendearen laguntza handia izan dut». Eta gaur egun zer? Bada, «nahiko geldirik» omen dago, «musikatik aparte, bertze hamaika saltsatan sartu nago eta deskantsua behar nuen».

### «Amets betean»

Jokin ere musika eskolan hasi zen eta hasiera hartan, «instrumentuak dezente aldatu» omen zituen: «Urte batez gitarrarekin ibili nintzen, baina ez zitzaidan sobera gustatu eta pianora pasatu nintzen, bozpasei urte egin izanen nituen. Gerora, saxofoiarekin hasi nintzen. Gustu hartu nion, eta bandan eta txarangan ibili nintzen eta geroztik, Esti bezala, hainbat instrumenturekin saltsan». Kantatzen, berriz, «nahiko berandu» hasi zen: «19-20 urterekin». Eta garai hartan sortu zuten Azken Trena taldea, «lagun artean, ez modu profesionalean, kanta baten sorkuntza eta lokaletik eszenatokira pasatzea zer den pixka bat deskubritzeko.Taldeak bere bidea egin zuen, baina ikasketak zirela eta, bakoitzak gure bidea hartu genuen eta desagertu zen». Ondotik etorri zen Janus Lester, egun Euskal Herri mailan punta-puntan dagoen taldeetako bat: «2020an itxialdia baino lehen buruan nuen, baina pandemiarekin gibelatu zen. Azkenean 2022ko Berako bestetan eman genuen lehenbiziko kontzertua eta 2022 bukaeran diskoa atera genuen».

Taldeak izan duen arrakasta begien bistakoa da, eta onartu du «suerteko» sentitzen dela, eta «amets betean» dagoela. «Lehenbiziko kontzertu hartara jende pila etorri zen. Ordurako *Maitasuna tabu* kanta bakarrik zabaldua genuen, eta jende guzia hura kantatzen ikustea kristoren sorpresa izan zen». Bi urteotan «gozatzen» ari da: «Urrian bukatuko dugu bira, ehun bat kontzerturekin. Gelditu gabe ari gara eta hagitz eskertuak gaude». Euskal Herritik kanpoko eszenatokiak ere zanpatu ditu Janusekin: «Martxoan, lehenbizikoz, Euskal Herritik kanpo izan ginen, Madrilen eta Logroñon, eta esperientzia polita izan zen. Abuztu bukaeran Finlandiara joateko aukera izanen dugu; bi kontzertu emanen ditugu».

### Sortzaileen herria

Hirurek modu naturalean barneratu dute musika. Pettiren etxean, adibidez, «etxean musika nahitaezkoa» izan omen da: «alaitzeko eta negar egiteko. Egunero Xorroxineko uhinak etxeko bi irratietan daude». Estitxuk eta Jokinek, berriz, hurbilean izan duten «erreferentea» aipatu dute: «Petti». Gainerakoan, «familian ez dugu musikaririk, baina musikazaleak bai. Familia handia elkartzean beti bazen kantatzeko afizioa eta gurasoek beti izan dute kontzertuetara joateko ohitura».

Etxetik haratago, Berako herriak musikarekin duen harremana nabarmendu du hirukoteak, eta hortik edan dutela. Pettiren irudiko, «zenbat musikari eta musikazale dauden ikusita, argi dago lotura berezia duela». Estitxu ere «Beran dagoen musika mugimendu handiaz» mintzatu da eta Jokinek «batez ere sorkuntzarako dagoen mugimendua» azpimarratu du: «Herri batean musikari aunitz izaten ahal dira, baina hain toki ttikian hainbertze sortzaile izatea zaila da». Bide horretan, Beran, Lizuniagan, dagoen garai bateko aduanak ematen duen bulkada goraipatu du Estitxuk: «Udalak herriko musikarioi uzten digu entseatzeko eta laguntza handia da. Mugimendu handiko lokala da».

Jokin eta Petti ez dira oraindik elkarrekin aritu; Pettik aitzindu duenez «aurten ariko gara lehenbiziko aldiz». Bi anaia-arreben kasuan, elkarrekin «pare bat aldiz» partekatu dute oholtza: «Azken Trenaren eta Estitxuren diskoen aurkezpenetan izan zen, azken horretan Pettik ezin zuelako. Hortik aparte, zerbait puntuala egin izan dugu», oroitarazi du Jokinek. Arrebarekin aritu izan denetan, «oholtzara igo aitzinetik urduritasuna» sentitu izan duela aitortu du, baina «eszenan ongi moldatu izan gara». Estitxuk «konplizitatea dagoenean kantatzea aunitzez errazagoa» dela erran du, eta anaiarekin kantatzea «berezia eta polita» dela.

Noizbait elkarrekin oholtzara igoko diren itxaropena ez dute galdua. «Nahi nuke!» bota du Jokinek eta «polita izanen litzateke» Estitxuk. Elkarrekin edo bakarrik, baina agerian gelditu da musikaren bueltan segituko dutela. Estitxuren ustez, «modu batera edo bertzera beti lotuak segituko dugu. Hori da gure zaletasunik handiena, bizitza ematen diguna». Jokinek dio hori «saihestezina» dela, eta hala gaineratu du Pettik: «Droga uztea zaila da eta kalterik egiten ez duen bat aurkitzen duzunean ezinezkoa».

# ARANTZAKO BESTAK 2024

## Egitaraua

### Abuztuak 14, asteazkena

**12:00etan** txupinazoa. **Ondotik** kalejira herriko txistulariekin eta Lesakako Musika Eskolako akordeoilariekin; azken urtean jaiotako haurrei ongietorria eta programaren marrazki lehiaketako sari banaketa. **12:30ean** herriko dantzarien emanaldia. **14:30ean** herri bazkaria Goiko Karrikan, Euskal Parrillaren eskutik eta Trikidantzek alaitua. **18:00etan** herriko eskolako ikasleen marrazki erakusketa gorapean. **18:00etan** haurrentzako eta gazteentzako jokoak. **20:00etan** musika plazan Belfast taldearekin. **21:30ean** zezensuzkoa. **00:00etatik aitzinera** Belfast taldea.



### Abuztuak 15, ortzeguna

**10:00etan** diana herriko txistulariekin. **11:30ean** meza. **12:30ean** Arantzako Dantza Luzea frontoian. **17:30ean** pilota partiduak. Sarrera: bortz euro. Lehenbiziko partiduan Bortzirietako gaztetxoak; bigarrenean emakumezkoak: Eneritz Arrieta eta Ane Mendiburu, Natale Aranburu eta Maite R.L. Mujikaren kontra. Hirugarren partiduan gizonezko afizionatuak: Iker Egiguren eta Antton Apezetxea, Oihan Canabal eta Markel Lizeagaren kontra. **20:00etan** bertso saioa plazan. Bertsolariak Kattin Madariaga, Maddi Ane Txoperena, Jon Maia eta Jesus Mari Irazu eta gai jartzailea Itziar Mitxelena. **21:30ean** zezensuzkoa. **00:00etan** musika plazan Obaneuke taldearekin.




































## Abuztuak 16, ortziralea

**10:00etan** diana herriko trikitilariekin. **10:00etan** herriko pilota txapelketako finalak; haurrenak eta helduenak. **14:00etan** udal ordezkarien arteko bazkaria. **17:00etan** entzierro ttikia plazan. **18:00etan** auzoen arteko desafioa frontoian. **20:00etan** buruhaundien eta trikitilarien kalejira. **20:15ean** mutxikoak plazan Holako taldearekin. **21:30ean** auzoetako afariak. **00:00etan** musika plazan Holakorekin.

## Abuztuak 17, larunbata

**10:00etan** diana herriko trikitilariekin. **11:00etan** puzgarriak frontoian. **13:00etan** elkartasun kantu-poteoa. **14:00etan** elkartasun bazkaria eskolan. **17:00etan** haurren lasterketa eta merienda plazan. **18:00etan** herri kirolak frontoian. Sarrera: bortz euro.



Nafarroako III. Mailako Aizkora Txapelketaren finala (Oier Mitxelena, Aitor Saralegi, Julen Urrutia, Beñat Senosiain eta Iker Goldarazena); Nafarroako Gizonezkoen Txokor Biltze Txapelketa (Josu Elizalde, Unai Iantzi, Lur Gil, Ander Arbilla, Asier Agirre eta Eneko Herrera); Nafarroako Emakumezkoen Txokor Biltze Txapelketa (Ainhoa Etxegarai, Sara Zapata, Nerea Huarte eta Ainhoa Iraizoz )eta arpana erakustaldia. **20:00etan** musika Joxpa taldearekin. **21:30ean** zezensuzkoa. **00:00etan** musika Joxpa taldearekin.



# «Bestetan jendea kontent ikustea ongi egindako lanaren saria izanen da»

**JULEN OSKOZ ELIZONDO** ARANTZAKO KULTUR ETA KIROL ZINEGOTZIA



Ofizioz irakaslea da Julen Oskoz Elizondo aranztarra, baina uda garaia izaki, lanean oporrak hartuta, bertzelako zereginetan harrapatu dugu: herriko bestei begira. Bera da Arantzako kultur eta kirol zinegotzia, eta beraz, berea da besten ardura nagusia.

Gaia, ordea, ez du arrotza, lehen ere kultur eta kirol batzordearen bueltan ibilitakoa baita: «Azken bi agintaldietan batzordean zinegotziei laguntzen aritu naiz». Koska bat goiti egitea tokatu zaio aldi honetan, eta estreinakoz, berak du besten aginte makila. Abenduan hartu zuen zinegotzi kargua, hauteskundeen bigarren deialdian taldea osatu zutenean. «Nahiko larri» ibili zirela onartu du, eta horren harira, «herrigintzan parte hartzea gero eta gehiago kostatzen zaigula» aipatu du. Azkenean osatu zuten zerrenda eta ez da damutu. Orain artekoaz «balorazio positiboa» egin du: «Egia erran, sartu aitzinetik bertigo gehiago nuen. Momentuz, gustura ari naiz».

Zinegotzi sartu eta «istantean» hartu zituen bestak esku artean: «Lanaren zati bat egina hartu nuen, aitzineko kultur zinegotziak gauza batzuk erdi lotuak utzi baitzituen. Garai honetan iskin guzietan bestak izaten dira eta badira azken momentura arte utzi ezin diren kontuak». Gainerakoa «poliki--poliki» osatu dute, herritarrekin elkarlanean, eta «20.000 bat euroko aurrekontuarekin «egitarau bete-betea» prestatu dute. Tartean dira, bere gustuko ekitaldiak ere: «Haurra nintzela, herritarren arteko pilota txapelketak ilusio berezia egiten zidan, eta orain ere bai. Joan den urteko pilota eta frontenis txapelketak politak izan ziren». Hortik aparte, «auzotarren arteko desafioa» nabarmendu du: «Herritar aunitzek parte hartzen dute eta berezia izaten da».

Zinegotzi izanda, aurtengo bestak beretzat «diferenteak» izanen direla dio, baina seguru ongi pasatzeko tartea hartuko duela. Halaxe desio die herritarrei eta bisitariei: «Parte hartzera animatuko nituzke. Bestetan plaza, frontoia edo herri ingurua jendez betetzeak eta jendea kontent ikusteak beteko gaitu; ongi egindako lanaren saria izanen da».



















# ETXALARKO BESTAK

## Egitaraua



### Abuztuak 14, asteazkena

**17:00etan** VII. lasterketa herrikoia. Haurrentzat eta helduentzat lasterketa ez lehiakorra. 12 urtetik behetiko haurren izen ematea. **17:30ean** haurren lasterketa eta helduen izen ematea. **18:00etan** helduen lasterketa. **Ondotik** merienda. **19:45ean** agerraldi isila *Euskal Presoak Euskal Herrirat*. **20:00etan** altxaferoa. Txistulariak, trikitilariak, Elutxa txaranga, buruhaundiak eta kankailuak. Txanpaina eta goxokiak banatuko dira. **21:30ean** herri afaria frontoian. Herri afarian eta ondotik Elutxa txarangak girotuko du gaua. **00:30ean** dantzaldia Itzal erromeriarekin.

### Abuztuak 15, ortzeguna

**10:00etan** dianak gaitariekin, buruhaundiekin eta kankailuekin. **12:00etan** meza nagusia txistulariekin eta ondotik Javier Perez de Azpeitiaren organo kontzertua. **12:30ean** herriko dantzarien saioa txistulariekin eta musikariekin. **Ondotik** eskola zaharreko estalpean hamaiketakoa dantzarientzat eta musikarientzat. **18:30ean** herri kirolen proba konbinatua. **20:00etan** Fan & Go taldearen emanaldia. **23:00etan** su artifizialak. **00:00etan** Fan & Go taldearen emanaldia.

### Abuztuak 16, ortziralea

**10:30ean** dianak herriko trikitilarien eskutik, buruhaundiekin eta kankailuekin. **11:00etatik 13:00etara** eta **15:00etatik 17:00etara** haurrendako joko parkea. **13:30ean** asau ttikia haurrentzat. **16:30ean** eskalada frontoi gibelean haurrentzat eta helduentzat. **18:00etan** herriko gazteen arte-

Ainhoa Altzuguren Mitxelena
ongi pasa bestak!
Abokatutza orokorrean · Herentziak
Alokairuak · Arazo administratiboak
Zerbitzua euskaraz ematen dut. Deitu hitzordua hartzeko
Legia 42, BERA - M. 630 97 21 89
ainhoaaltzuguren@gmail.com

3Hiru Home
Salgai dauden pisuak bilatzen ditugu
Pisuaren balorazioa doan eta konpromisorik gabe
943 930 025 | Prudencia Arbide, 2 • IRUN | www.3hiruhome.com

ETXALAR ESCAPE ROOM
Iñarreta, 4 - ETXALAR
M. 634 77 99 78
www.etxalarescaperoom.com
info@etxalarescaperoom.com

bai euskarari – zerbitzua euskaraz
HERRIKO OKINDEGIA
Ogi naturalak, ama oreaz eginak:
Espelta | Garia | Zekalea | Arto ogia
Egunero irekia: 06:00 > 13:00 • T. 627 033 975 • ETXALAR

ONGI PASA BESTAK!
ELUTSA OSTATUA
EGUNEKO ETA ASTEBURUKO MENUAK
PINTXOAK
BOKATAK
RAZIOAK
Anduetzeta, 13 - ETXALAR • T. 948 635 191

ZUMARBEL creaciones metálicas
Igantzi (Navarra)
948 63 74 11
Lehen A.T.M. S.A
Berrizaun 25,
31790 IGANTZI
T. 948 63 74 11
zumarbel@hotmail.com
www.zumarbel.es

Frutas y Verduras
ERRANDONEA, s.l.
FRUTAK ETA BARAZKIAK
BILTEGIA: 948 630 102
SAKELAKOA: 633 480 563
Bidasoa, 76 - atea 21-22 • BERA

JAIONE GOZOTEGIA
Altzate, 19 • BERA •
T. 948 630 786



ko herri kirol desafioa. **19:30ean** Jaian Jai taldea. **00:00etan** DJ Track.

## Abuztuak 17, larunbata

**10:30ean** diana herriko txistularien eskutik buruhaundiekin eta kankailuekin. **11:00etan** herriko umeen XXXVII. pilota txapelketako finalak. Aurre-benjaminak, benjaminak, benjaminak/alebinak eta infantilak. **12:00etan** Aitor Danboriena Memoriala XIII. pilota txapelketako finala. **13:00etan** pilotako sari banaketa. **17:00etan** XXX. Mus Txapeketa. Bi kategoria izanen dira, haundiena eta 16 urtetik beheitikoena. Apuntatzeko 16:30etik aitzinera. **18:30ean** herriko trikitilarien saioa. **Ondotik** trikitilarientzako merienda eskola zaharrean. **19:30ean** Saltoka euskal musika eta dantza tradizionala. **20:00etan** museko sari banaketa. **00:00etan** Laket taldea.

## Abuztuak 18, igandea

**10:30ean** diana Elutxa txarangaren eskutik, buruhaundiekin eta kankailuekin. **12:00etan** Hodei magoaren emanaldia. **14:00etan** bertso bazkaria Larraburuan. Sebastian Lizaso eta Onintza Enbeita bertsotan, eta Joseba Olagarai gaiak jartzen. **14:00etan** asaua ermitako zelaian. Plaza ingurutik Elutxa txarangarekin batera elkarrekin joanen dira ermitako zelaira. **16:30ean** jolas dinamikoak, sortzaileak eta pantailarik gabekoak haurrentzat Txiribueltaren eskutik. **20:00etan** Trikidantz plazan. **19:00etan** Puntu Morea plazan. Eraso matxisten aitzinean arreta emateko zerbitzua. **23:30ean** DJ J&J.











MARITX
· INGENIARITZA ELEKTRIKOA · PROIEKTU ELEKTRIKOAK
· BOLETIN INDUSTRIA · INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
Ongi pasa bestak!
T. (0034) 636 617 450 Legia, 23 - BERA

ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOTEGIA
zubiondojatetxea.com
Alasta karrika · BERA | T. 948 625 472

USOA kooperatiba
Ongi pasa herriko bestak!
50 urte 1974-2024
948 635 214 605 631 244 ETXALAR

IRIBARREN
Fabrikazioa, salmenta, instalazioa
Energia aurrezteko leihorik egokiena!
Passivhaus-Etxeentzako leihoak
BESTA ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU !!
Antsolokueta, 28
31760 ETXALAR
T./F. 948 635 071
info@ventanasiribarren.com

# «Ongi pasatu eta saio txukun bat egin nahiko genuke»

**ASIER ZELAIETA TOMASENA** ETXALARKO GAZTEA



Bestetako egitaraua irakurriko zuenak ikusiko zuen aldaketarik. Berriz ere eginen dute aurten urte aunitzez ohikoa izan den herriko gazteen arteko kirol desafioa. Abuztuaren 16an, izanen da, ortziralean.

Hainbat gazte aritu dira desafioa antolatzen, eta horien tartean da Asier Zelaieta Tomasena ere. Kontatu duenez, inauterietako kinto egunean aipatu zuten lehenengoz desafioa egiteko aukera, eta bizpahiru lagun elkartu eta aitzinera egitea erabaki zuten. Denera 24 lagun ariko dira, hiru taldetan banatuta. «Gazteenak 19-20 urte dituzte eta helduenok 33-34 urte ditugu», azaldu du.

Entrenatzen hasiak dira dagoeneko. «Plazara atera eta saio txukun bat egin nahiko genuke herritarrek aunitz baloratzen dutelako. Bizkorki ari gara entrenatzen, jendeak nahiko serio hartu du», nabarmendu du Zelaietak. Izan ere, ia gehienak inoiz herri kiroletan aritu gabeak dira, eta lehenengoz plazaratuko dira.

Taldeak sortuta, erabaki dute dagoeneko zein kiroletan ariko diren: koxkor biltzen, lasterka, harria altxatzen, arpanean eta aizkoran. «Hori izanen da lehen proba, eta bigarrena oraindik ez dugu zein den erranen, jendearentzat sorpresa izan dadila nahi dugu», dio antolatzaileak.

Desafioa egin aitzinetik dagoeneko giro ederra sortu da horren bueltan herrian, eta pozik dira antolatzaileak. «Taldeen arteko pikea baino saio txukun bat egin nahi genuke, ongi pasatu, eta bestetan giro ederra izatea. Lehen izaten zen tradizio hori berreskuratu nahi dugu eta lehengoa oinarri hartuta, gurera moldatu dugu desafioa».

Zelaieta hagitz kontent dago orain arte izandako harrerarekin: «Oharkabean ateratako kontu bat izan zen, eta hiru kuadrillatako jendea bildu gara. Orain plazara atera eta saio txukun bat egitea bakarrik falta da eta jendea animatu dadila ikustera». Eta desafioa bukatzean zer? «Afari bat eginen dugu parte hartzaile denek eta epaileek eta ea arratsa zenbat luzatzen den».

Herriko Ostatua ETXALAR
Etxeko sukaldaritzaz gozatu nahi baduzu, etorri eta dastatu!
Si quieres disfrutar de cocina casera, ¡ven y pruébalo!
Si vous avez envie de déguster notre cuisine, venez l'essayer!
Hamarretakoak, bazkariak, afariak, menua eta karta
Almuerzos, comidas, cenas, menú y carta
Apéritifs, déjeuners, dîners, menus et carte
T. 948 39 79 59 - Andutzeta,15 - ETXALAR

Ongi pasa bestak!
Huevos Camperos LARRAZ
%100 BERTAKOA
%100 LIBREA
%100 NATURALA
%100 BENETAKOA
T. 609 43 35 87 larraz@huevoslarraz.org

# DONAMARIAKO BESTAK 2024

## Egitaraua




### Abuztuak 14, asteazkena

**18:30ean** altuerako aizkora erakustaldia eta Nafarroako 2. Mailako Aizkolari Txapelketaren kanporaketa. **20:00etan** txupinazoa botako du Markel Leatxek, ondotik herriko trikitilarien kalejira. **21:00etan** zopak herriko ostatuan. **00:30etik 05:00etara** Bull DJ.

### Abuztuak 15, ortzeguna

**09:00etan** diana auzoz auzo Baztango gaiteroekin. **11:00etan** meza. **12:00etan** kalejira elizatik frontoira Baztango gaitero eta erraldoiekin. **12:15ean** omenaldia 80 urteko herritarrei. **12:30ean** Doneztebeko Dantza Eskolako emanaldia. **18:00etan** binakako pilota partidak: Elizalde eta Merino II vs Victor eta Irusta. **20:30etik 21:30era** dantzaldia Ansorregi eta Larrañagarekin.

### Abuztuak 16, ortziralea

**10:30ean** herri krosa. **12:00etan** herri kirolak. **13:00etan** paella prestatzea eta jatea. **17:00etan** mozkor jokoak. **20:30etik 21:00etara** gazte afaria. **22:30ean** Hago silik. **00:00etan** Endara DJ.

### Abuztuak 17, larunbata

**11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara** puzgarriak igerilekuan eta frontoian. **17:30ean** mus txapelketa. **18:00etan** txokolate hartzea. **19:00etan** patata tortilla eta postre lehiaketa eta afaria. **21:30ean** sari banaketa. **Afalaurre eta ondotik** dantzaldia Aitziber eta Aritzekin.

### Abuztuak 18, igandea

**14:00etan** herri bazkaria Xabat Illarregi eta Jone Uria bertsolariekin eta trikitilariekin. **20:00etatik 22:00etara** dantzaldia Muxutruk taldearekin. **22:00etan** afaria plazan. **23:00etatik 02:00etara** Muxutruk taldea. **02:00etan** Gaixoa ni.





























# ORONOZ-MUGAIRIKO BESTAK 2024



## Egitaraua

### Abuztuak 14, asteazkena

**12:00etan** txupinazoa, ondotik kalejira herrian barna. **14:00etan** haurren bazkaria frontoian. **15:00etatik 18:00etara** haurrendako puzgarriak, jokoak, aurpegi pintaketa etab. frontoian. **Ondotik** merienda. **16:30ean** mus txapelketa Gaztelune elkartean. **19:00etan** erraldoien itzulia herrian barna, frontoitik hasita. **21:00etan** baztan zopak. **00:00etan** dantzaldia plazan Altxa Porru taldearekin.

### Abuztuak 15, ortzeguna

**10:00etan** meza nagusia. **Ondotik** erraldoien itzulia. **11:00etan** herriko dantzarien erakustaldia frontoian. **12:00etan** luntxa frontoian. **17:00etan** pala finalak. **20:00etan** Los Gavilanes mariatxiak plazan. **22:00etan** bingo musikatua plazan. **Ondotik** karaoke herrikoia.

### Abuztuak 16, ortziralea

**11:00etan** partxis lehiaketa Gaztelune elkartean. **14:30ean** gazte bazkari mozorrotua Azkazkorron. **17:00etan** Gotx elektrotxarangarekin itzulia herrian barna eta Debalde.com herriko fanfarrearen itzulia. **20:00etan** mozorro lehiaketa plazan. **22:00etan** Koiputre gaua, kontzertuak: Zinez, Maruxak, Katu eta DJ Fifi & Fefa.

### Abuztuak 17, larunbata

**11:00etan** Txarutako pilota partidak. **14:00etan** zikiroa frontoian. **16:30ean** bazkalondoa Fidel akordeoilariak alaiturik. **19:00etan** aizkora erakustaldia: Oihana Fernandez de Barrena eta Suharri Rodriguez vs Nerea Sorondo eta Joxean Etxeberria. Harriarekin Estefania Etxebeste. **21:00etan** postre lehiaketa herriko plazan. **00:00etan** DJ Endara.



# «Zein polita den haurren aurpegian ilusioa ikustea»

**NAIARA OTEITZA RAZKIN** ORONOZ-MUGAIRIKO KONPARTSA



«Oronozko emakume ez hain gazte eta alaia» da Naiara Oteitza, «herriko konpartsako kidea eta lagunekin egotea gustuko duena». Gaztetan bestazalea bazen ere, «duela urte batzuk ama izan nintzen eta alde batera utzia dut». Hala ere, «ateratzen naizenean besta polita egiten saiatzen naiz. Hori bai, hurrengo egunak…».

### Erraldoien artean

2019an sortu zen Oronoz-Mugairiko konpartsa, «horren aitzinetik, Jo ala Jo elkarteko erraldoiekin aritzen ziren bestetan gerora konpartsako kide bihurtuko ziren zenbait gizon eta emakume».

Oteitza hasmentatik izan zen «saltsan sartuta; entseguetara agertzen nintzen eta behar zenean laguntzen nuen». Izan ere, «betitik ezagutu ditut erraldoi eta buruhaundiak nire amaren herrian». Handik urte pare batera, berriz, erraldoiak dantzatzen hasi zen.

Gaur egun 20 bat lagunek osatzen dute konpartsa, «dantzari haundiak eta ttikiak, musikariak (denak emakumeak) eta edariak eramaten dizkiguna, *La del Carro*». Horrez gain, lau erraldoi dituzte: Petra eta Manuel haundiak eta Pepa eta Joxele ttikiak. «Eta borzgarren bat egiten ari gara».

### Haurren irribarrea helburu

Herriko bestak «sakratuak» dira konpartsarendako; «egun pare batez ateratzen gara eta ilusioz alaitzen ditugu karrikak. Harrigarria da nola erakartzen duen jendea eta zein polita den haurren aurpegian ilusioa ikustea. Gainera, erraldoi ttikien barnean sartzen dira eta harrituak gelditzen dira sorbaldetan eramatean». Bestez gain, «konpartsaren urteurrenean ere ateratzen gara, herriari buelta eman eta bazkaria egiten dugu».

Baina herritik kanpo ere ibiliak dira; «Teruelen, Deban, Aretxabaletan, Atezko bailaran… eta duela urte batzuk Ultzamara joaten garela Gaztanberaren egunean. Ez ditugu ateraldi haundirik egiten baina ateratzen garenean gustura joaten gara».

Eta doike, atera aitzinetik entseatu behar da; «udaberri aldera hasten gara eta astean behin gelditzen saiatzen gara, baina batzuetan zaila da». Hala ere, «lana ttikia eta esfortzu gabea bihurtzen da gustukoa denean».

### Bestetarako gogotsu

Oronozko bestak «urteko ekitaldi garrantzitsuenetakoak dira niretako; adin guzietako herritarrak plazan eta frontoian dantzan edo solastatzen ikustea arras polita da. Egun guziek badute zerbait berezia, eta adinarekin gustuak aldatzen dira, baina erranen nuke herritarrok gehien maite dugun eguna bezpera dela, gogotsu eta fresko gaudelakoz».

Azkenik, «Oronoz-Mugairiko bestetara zein konpartsara gonbidatuak zaudete denak. Besta ederrak pasa eta giroa ezin politagoa izan dadila!».

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatua
Dibortzioak, herentziak, alokairuak, alkoholemiak...
T. 948 581 468 | M. 630 354 818
Santiago, 59 2C ELIZONDO
Ongi pasa bestak!

Miren Gortari Sein
ILEAPAINDEGIA
ONGI PASA BESTAK!!
Martin Urrutia · ORONOZ-MUGAIRI · T. 948 59 23 10

USTARROZ DISTRIBUCIONES
Ongi pasa Bestak!!
Sagualde, 19
• 948 59 20 12 • 609 38 58 04 •
Oronoz- Mugairi

OTEIZA ARKITEKTOAK
665 71 56 96 - 943 42 52 43
www.oteizaarquitectos.com
Apote Karrika 8 (Maskonea)
31730 - Irurita (Baztan)
Askatasunaren H. 7 - 7ºE
20004 - Donostia
oteizaarquitectos

TALLERES olloki S.L. TAILERRAK
T. 948 592 339 ongi pasa bestak!
Poli. indus. Zozaia – Errota, Pab.1 – Zozaia-Oronoz

ERREKA-ALDE
zurgindegia
Zurgin lanak orokorrean
Teilatuak • Sukaldeak • Armairu enpotratuak
Tfnoa: 948 592 070 · ORONOZ-MUGAIRI

MUGAIRE ZONE AUTO



Gasolindegia
Mekanika azkarra
Gurpilak
Olio aldaketak
T. 948 599 090 • 948 599 236
N-121-B errepidea • ORONOZ-MUGAIRI
centreauto@josenea.es
















# AMAIURKO BESTAK

2024

## Egitaraua

### Abuztuak 13, asteartea

**20:00etan** suziriak eta ezkila jotzea, **ondotik** Kuxkuxtu txaranga herrian barna. **21:00etan** baztan zopak Kuxkuxtu txarangarekin. **01:00etan** gaupasa Iratzar taldearekin.

### Abuztuak 14, asteazkena

**11:00etan** haurren jokoak plazan. **14:00etan** haurren bazkaria elkartean. **16:00etan** puzgarriak eta jokoak frontoian. **19:30ean** txokolate hartzea. **20:00etan** kantaldia Bidenabar taldearekin. **21:00etan** muxikoak, gaita eta larrain dantza. **22:30ean** kontzertuak: Xutik, Kaskezur eta Burutik.

### Abuztuak 15, ortzeguna

**10:00etan** Baztan Bidasoko XX. Ardi Erakusketa eta Lehiaketa, Ardi Gasna Lehiaketa eta artisauak. Zaldi eta behien erakusketa trikitilariekin. **10:30ean** meza nagusia, **ondotik** Gaztelu taldearen emanaldia elizan. **13:00etan** mutil dantzak eta hamaiketakoa. **17:00etan** artzain zakur desfilea. **17:30ean** XLVIII. Artzain Zakur Txapelketa, Patxi Etxeberriaren XIX. Memoriala. **20:30ean** Los Txingones de la Rencle.



### Abuztuak 16, ortziralea

**11:00etan** haurren esku pilota finala eta mus zimizte. **12:00etan** erraldoiak herrian barna. **14:00etan** gazte bazkaria. **17:30ean** bingo herrikoia. **19:00etan** Skapaie elektrotxaranga herrian barna. **21:00etan** sardina eta txistor jatea. **21:00etan** Kalima Limon DJ. **Ondotik** martxa goitiko ostatuan.

### Abuztuak 17, larunbata

**12:00etan** mus txapelketako finala. **12:30ean** XXI. Boneta Jaurtiketa Lehiaketa. **14:00etan** zikiro jatea Beñatek alaiturik. **21:15ean** muxikoak, mutil dantzak, gaita eta larrain dantza. **23:00etan** gaupasa Bide Batez taldearekin. **Ondotik** Txingudi DJ.






# «Euskal kantak maite ditugulakoz sortu genuen Gaztelu taldea»

**JEXUX URRUTIA JAUREGI** GAZTELU ABESBATZA



Amaiurren sortu eta bizi den gizona da Jexux Urrutia, eta duela 28 urte abiatu zuen lagunekin Gaztelu Abesbatza; «beti gustatu izan zaizkigu euskal kantak eta ttikitatik kantatu ditugu. Hortaz, talde bat osatzea erabaki genuen, kantua serioago hartu eta harmoniak zainduz». Zuzendari bila hasi ziren, eta horretan aritua zen Fernando Cortijori deitu zioten, gaur egun abesbatzako zuzendaria dena. Taldearen izena, berriz, «Amaiurko Gazteluan gertatutakoa oroitzeko aukeratu genuen».

Gaur den egunean, 18-20 bat lagunek osatzen dute taldea; «batzuk hil dira, bertze batzuk utzi dute… baina nahi duten pertsona guziak hartzeko prest gaude taldean, betiere musikarako belarria, pazientzia eta konstantzia pixka bat izanez gero».

Asteazkenero biltzen dira herriko elkartean entseatzeko, eta euskal kantak kantatzen dituzte hiru-lau ahotsetara. Kontzertuak, berriz, «deitzen digutenean egiten ditugu». Hainbat lekutan ibiliak dira; «Maulen, Iruñean, gazteluko 500. urtemugako ekitaldian… eta nola ez, Amaiurko bestetan. Beti kantatzen dugu 15ean, meza ondoan».

## Bestetarako prest

